



HONDARRIBIKO UDALA

## XXVIII. HERRI KANTA JAIALDIA OINARRIAK

1.- Kultura departamentuak XXVIII. Herri Kanta Jaialdia antolatu du. Hau, 2017ko maiatzaren 21an burutuko da, goizeko 11:30tan hiri honetako Gipuzkoa Plazan eta gero herrian zehar.

2.- Jaialdian parte hartu nahi duten abesbatzek B.A.Z.en izena eman beharko dute **apirilaren 27ko** ordubata baino lehen, taldearen izena, zenbat partaidek osatzen duten taldea, zuzendariaren izena, harremanetarako pertsonaren izena, telefonoa eta helbide elektronikoa, abestuko dituzten abestiak, letrak eta bazkarira joango diren partaideen kopurua adieraziz.

3.- Parte hartu ahal izateko, abesbatzek ondoren zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte:

- Ahots berdinekoak edo mistoak izan litezke eta bertako kideak 16 urtez gorakoak izango dira.
- Abesbatza bakoitza gutxienez zortzi kidez osatuko da.
- Talde bakoitzeko kideen %80 gutxienez, hondarribiarrak izango dira, Hondarribian jaioak edo bertan bizi direnak.

4.- Talde bakoitzak, jaialdian zehar bi kanta abestuko ditu eta zuzendari artean, apirilaren 28an Udaletxeko Areto Nagusian 13:30ean burutuko den bileran aukeratuko den abestia ere, zeina parte hartzen duten talde guztiek, ikusleekin batera, abestuko baitute.

Bukatzeko "Agur Jaunak" kantatuko da.

Herri bazkariaren ondoren, koruek herrian zehar ibili beharko dute kantuz.

5.- Kanta guztiak Euskal Herriko kantak eta euskaraz kantatuak izango dira.

6.- Kultura departamentuak jaialdiaren ondoren izango den herri bazkarira gonbidatuko ditu parte hartzen duten abesbatza guztiak.

7.- Jaialdi honetan parte hartzearekin baldintza hauek ontzat ematen dira.



Hondarribian, 2017ko martxoak 14an  
Kultura zinegotzia,

Izp.: Juan Luis Silanes Agirre